316.ZENBAKIA-2022-URTARRILA-EURO BAT

# BALEIKE

**ZENBAKI HONEKIN BATERA**
+ GUKA ALDIZKARIA

KOMENTUAREN

## BIZITZA BERRIA

ME MAKINA ERREMINTA MUSEOA
T. 943 74 84 56
ELGOIBAR
www.museoa.eus

# NIK ZUMAIAN EROSTEN DUT, ETA ZUK?

*Gertu bizi,*
*Gertu erosi!!*

GERTU
ZUMAIAKO MERKATARI & OSTALARI ELKARTEA

ZUMAIA



Endañeta Zumaia

ENDAÑETAk ez du saldu bakarrik egiten, arreta ere ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

TIEN21

BALEIKE
**316**
**2022-URTARRILA**
AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

## Aurkibidea

4 **Hitz tantak** Juan Luis Romatet *Jon Argoitia*
6 **Izpiak eta hizkiak** Arnaitz Rubio Aprea *Roberto Fuentes*
8 **Hainbat aburu** Irune Aranguren Barragan *2022 kontzientea*
9 **Errematea** Sara Ibarguren *Euripean*
13 **Erreportajea** Maria Maya Manterola *Komentua biziberritzen: bigarren jaiotzerako lehen urratsak*
22 **Erretratua** Jabi Gonzalez Toston *Arantxa Aramendi*
25 **Heziketa** Mireia Centeno *Goizeko presak*
26 **Plazan bazan**
29 **Zientzia eta ingurumena** Euskal Kostaldeko Geoparkea *Asier Hilario*
35 **Argazki Artxiboan Barrena** Baleike *Aldaketaren lekukotasuna*
41 **Kultura** Juan Luis Romatet *Abstrakziotik desagertutakoak*
42 **Literatura** Antton Peñalba *Galtzaileak eta traketsak harremanetan*
43 **Agenda**
45 **Nire txanda** Marixi Sesma Aizpurua *Huddersfield-New York-Zumaia Connection*
46 **Azkena** Juan Luis Romatet *Lautik bostera*

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.

2020 KUDEAKETA AURRERATUAKO DIPLOMA

BALEIKE

TOKIKOM

**Argitaratzailea**
Urolako Komunikazio Taldea Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730 AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

**Lehendakaria**
Xabier Azkue Ibarbia
**Zuzendaria**
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
**Erredaktore taldea**
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta
Imanol Azkue
Sara Ibarguren
**Argazkilaria**
Arnaitz Rubio Aprea
**Diseinu arduraduna**
Ane Azkue
**Hizkuntza arduraduna**
Imanol Azkue Ibarbia

**Publizitate arduraduna**
Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus
**Administrazio arduraduna**
Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

**Inprimategia**
Antza Inprimategia (Lasarte-Oria)
**Lege Gordailua:** SS-405/94
**ISSN:** 1136-8594
**Tirada:** 800 ale

Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako Udala

ZUMAIA BIZITZEKO DA

# Jon Argoitia

**TESTUA:** JUAN LUIS ROMATET
**ARGAZKIA:** ARNAITZ RUBIO APREA

Ez du lanbidea, baina makina bat ordu eskaintzen dizkio Jon Argoitiak (Zumaia, 1972) pasio duen saskibaloiari. Jokalari hasi zen, eta orain Iraurgiko 14-15 urteko neskak entrenatzen ditu Azpeitian.

**Saskibaloia pasioa duzu, zaletasuna baino gehiago.**

Zaletasunarekin hasi zena, pixkanaka, pasio bihurtu da. Denbora pasa askorekin gertatzen den bezala, sakontzen joaten zara, irakurtzen, ikasten.

**Zumaian saskibaloi taldea izan zen.**

Gure kuadrilla beti saskibaloian ibiltzen zen. Orain alkatea den Iñaki Ostolazaren kuadrillaren aurka jokatzen genuen askotan, eta 17 urterekin-edo taldea osatzea pentsatu genuen. Iñakik monitore titulua atera zuen taldea atera ahal izateko. 1990. urte inguruan-edo aterako zen. Hamar bat urte iraun zuen, gero pare bat urteko hutsunea egon zen, eta gero jarraitu egin zuen.

**Jokalaria zinenean ere entrenatzaile izan nahi zenuen.**

Urte batzuetan jokalaria izateaz gain, entrenatzailea ere izan nintzen. Jokatzea gustuko nuen, baina entrenatzaile izatea betidanik izan nuen buruan. Jokalari batek kantxa barruko sentsazioak ezagutuko ditu, baina jokoa modu global batean ikusteko, hori, zalantzarik gabe, hobeto ikusten da aulkitik.

**Entrenatzaile izateko titulua beharko zen, bada...**

Soldaduska egitea tokatu zitzaigun. Objektore egin ginen, eta zerbitzua Saskibaloi Federazioan egin genuen. Astean bizpahirutan joaten ginen Federaziora, eta han ikastaro batzuk egin genituen. Han atera genituen monitore eta epaile izateko tituluak, eta haiekin egin genuen aurrera.

**Azpeitian zaude orain entrenatzaile lanetan.**

Zarautzen bi urte egin nituen entrenatzaile. Seme-alabak jaio zirenean saskibaloia utzi nuen. Justu orduan deitu zidan Euskadiko Federazioko koordinatzaileak infantil mailako Euskadiko hautatzaile izateko. Proba egin eta sartu egin nintzen. Iker Irribarria pilotaria izan zen entrenatu nuen jokalarietako bat. Gero, Azpeititik deitu zidaten entrenatzaile bat behar zutela-eta, eta hor berriro hasi nintzen. Alaba ere hasi zen saskibaloian, eta orain semea hasi da.

Zumaian hiru urte egin nituen seniorren entrenatzaile, eta bukatu zenean Azpeititik deitu zidaten. Entrenatzaile titulu nazionala ateratzera joan ginen [Iraurgiko lehen taldeko entrenatzaile] Lolo Encinas eta biok, Madrilera. Berez, kadete mailako taldea hartu behar nuen, baina bere laguntzaile izateko eskatu zidan Encinasek. Lehen nazionaletik EBA ligara igo ginen, estatuko hirugarren maila zenera, eta hor bai, hor helduekin egin nuen lan.

**Adin txikikoekin egiten duzu lan. Izango al zenuke gogoa handiekin aritzeko?**

Txikiak esponja batzuk dira eta esaten zaien guztia irensten dute. Batez ere, kimuen eta infantilen mailetan. Denbora gutxian hobekuntza handiak ikusten dituzu. Baina lehiatu nahi baduzu... EBA mailako talde hura entrenatu nahiko ote nuen? Bada, bai. Baina ez zen gertatu.

**Neska taldea entrenatzen duzu orain.**

Teknikoki, taktikoki lan berdina egiten dut neskekin zein mutilekin. Gero, taldea eramateko orduan, desberdintasunak ikusten ditut: neskek galdera batzuk egingo dizkizute, mutilek egingo ez dituztenak. Baina, oso gustura nago eta asko ikasi dut beraiekin, bai psikologia aldetik, bai taldea nola eraman. Zortzi bat urte zituztenean hartu nuen talde hau, eta orain 14-15 dituzte.

**Entrenatzeko materiala biltzeko orduan, ez du zerikusirik izango gaur egungo munduak edo orain 25 urtekoak.**

Youtube eta halako plataformekin nahi duzun informazio guztia duzu orain. Orain 25 urte hasi ginenean ez genuen halako ezer. Azken finean, autodidaktak izan gara. Nik, konfinamenduan, auskalo zenbat partida ikusi ditudan. Partidak ikusten ere asko ikasten da, baita beste kiroletako partidak ikasten: taldea nola kudeatzen duzun, etab. Orain etxea txukuntzen gabiltza, eta saskibaloiaren inguruko liburu pila bat agertu da. Emazteak esan dit: "Hemen dagoenaren % 10 baldin badakizu...". ■

# Roberto Fuentes

**ARGAZKIA:** ARNAITZ RUBIO APREA

1974an jaio nintzen. Popeto da nire ezizena. Ez dakit nondik datorren; txikitan jarri zidaten, eskolan. Zer dudan nahiago? Roberto edo Popeto? Biak!

Txikia nintzela beti hondartzan egoten nintzen, eta aurreko belaunaldiko jendea ikusten nuen surfean. Ramon, Poti... Hamar bat urte izango nituen, eta kortxo batekin hasi nintzen surfa probatzen. Hasiera hartan oso material txarra erabiltzen genuen. Zarautzen bazegoen denda bat, oso txikia, eta zuen materiala oso garestia zen. Bost lagunen artean erosi genuen gure lehenengo surf taula. Orain pertsona bakarrak ditu bost taula! Lehen trajea, berriz, Frantzian erosi nuen. Egun osoa pasatzen genuen Itzurunen. Ez da maila handia behar surfarekin gozatzeko; egunero ikasten duzu zerbait, egunero zoaz aurreratzen.

Hasiera hartan Itzurunen ez zegoen ezer, ez genuen aldagelarik, ez ezer. Lagun batzuk elkartu ginen, eta kluba sortu genuen, Ziske. Oso harro nago horrekin. Hasiera gogorra izan zuen, baina orain azpiegitura oso onak ditugu.

Surfaren praktika asko hazi da Zumaian; gehiegi, esango nuke. Surfean lau lagun aritzen ginen garaikoak gara: Orroagara joan, eta inor ez; Sakonetara joan, eta inor ez. Orain boom bat bizi da: Zumaian afizio handia dago. Ederra ere bada, baina esentzia galdu duela esango nuke. Orain lehia handiagoa dago. Gero, Itzurun txikia da, eta denok nahi dugu olatua hartu. Jende asko baldin badago, ez naiz uretan sartu ere egiten. Eguerdiko momentua gustatzen zait surfa egiteko; une ona da, hori da nire momentua.

Beti gustatu izan zait zinea. Bideoak-eta ikusten egoten nintzen, eta hala hasi nintzen bideoak egiten, bideokamera kaskar batekin eta editatzeko programa kutre batekin. Bideo txiki bat egiten hasten zinen, musika pixka bat jartzen zenion, eta aizu, ondo geratzen zen. Nuen tresneriarekin bost minutuko bideo bat egiteko agian sei ordu behar nituen. Tortura hutsa zen. Gero, kamera eta editatzeko ordenagailu berriak erosi nituen, eta orain azkarrago egiten ditut. Orain, telefono mugikorrarekin, edozer egin dezakezu.

Olatuen irudiak grabatuta izaten nituen, eta gero, olatu horien inguruan sortzen nituen istorioak. Askotan inprobisatu egiten nuen, baina beste batzuetan ideia batetik abiatuta garatzen nituen bideoak. Ideia bat baldin badut, bizpahiru egun egon naiteke horrekin bueltaka. Ideia asko ohean nagoenean okurritzen zaizkit; ohean nagoenean bisualizatzen ditut eszena guztiak. Jaiki eta post-itetan idazten ditut. Hori da nire sistema.

Film laburren Surfilmfestibal jaialdia egiten zen lehen Donostian. Zortzi bat urtetan hartu nuen parte, eta sariak ere jaso nituen. Lagun artean egindako bideoak ziren, baina jaialdirako aukeratzen zituztela ikusita, bua!, horrekin animatu egiten nintzen. Gero, derrepente, fikziozko lanak egiten hasi nintzen. Bideo laburrak dira, konplikazio handirik eskatzen ez dutenak. Nire gauzak egiten ditut, nire ukitua ematen diet, eta jendeari gustatzen bazaio, primeran.

Bideoklipak egiteko eskaintzak ere izan ditut, talde batzuek eskatuta. Baina beldurra eta bertigoa ematen dit. Presioa ere bada; nik niretzat egiten ditut bideo hauek, barre egiteko. Baina, inoiz ez da berandu eta agian egunen batean animatuko naiz. ■

HAINBAT ABURU

IRUNE ARANGUREN BARRAGAN

# 2022 kontzientea

Erromatarrei zor diegu gure egutegi hau. Denbora neurtze horrek buruhauste nahiko baditu gure historian, gure azken konkista ote? Laster urtea bukatzear da, eta urte berri baten hasiera dugu 2022a. Berri horrek, halaber, egutegi berriaz gain, badirudi urteroko esperantza eta ilusio horiek eta zerbait berezia ere dakarrenaren sinesmen magikoa dugula, ezta? Ekaitzaren ondorengo lasaitasuna omen. Hala ere, kontzientzia hartzea garrantzitsua iruditzen zait; gure esku ez dagoen horretan esperantza asko jartzeak bueltan danbateko gogorragoa dakar.

Ez pentsa optimismoaren aurkako lerroak direla aurrekoak, errealismoarenak direla esango nuke. Gure gogamenak sosegua behar du, eta askotan esperantza da horren iturri, eta hori ondo dago, baina esperantza antzua denean, gure ongizatearen jabetza galtzen dugu, eta ongi izatearen oinarri nagusia hori da, kontzientzia handitzea, propioa eta baita inguratzen gaituen horrena ere.

Aurreko bi urteak txar eta gogortzat jotzen dira orokorrean; horietan salbuespenak ere badaude, noski, asko jazo da bi urte hauetan ere, balio sozialak

**KONTZIENTZIAREN LANKETA JARRIKO NUKE URTEKO HELBURU GISA DENENTZAT**

zentzu batzuetan aldatu direlakoan nago, lehen garrantzia hartzen ez zuten gauzek berebizikoa dute orain, baita alderantziz ere. Kontzientzia handitzeko bi urte aberats izan direla iruditzen zait, batez ere gure ongizateari buruzko hausnarketan, eta hori egiteko beta izan dutenek 2022ra emozionalki erosoago iritsiko direla iruditzen zait. Badaude, bestalde, pandemia honetan biziki kaltetuak izan direnak ere, eta horiei beraien buru zein inguruaren zaintza jarriko zaie munduaren zentroan, zauriak ondo sendatu behar dira orbanak berriz ez irekitzeko, eta bai, alderdi horretan, 2022a zauri zaintzaileen urtea izango da.

Praktikan, abenduaren 31 eta urtarrilaren 1a berdinak dira, baina egia da, baita ere,

HAUXE BAI JENEROA!

psikologikoki lerro ikusezin bat eraikitzen dugula, hasiera eta bukaera bat, proiektu berriekiko ate irekitze bat, gure gogamenak enkoadraketa bat behar duelako, ezjakintasun eta ziurgabetasunak segurtasun eza dakar; beraz, kontrolatu ezin dugun denbora horrela konkistatzen dugu. Urtarrilaren batetan, beraz, geure buruan nolabaiteko hasiera berri baten aukera irekitzen da, eta hortik datoz urte berriko helburuak. Eta hori guztia irakurri ondoren zein helburuk duten zentzua irakurtzeko zain egongo zarete asko, hortxe ba nire hazitxoa zuentzat: kontzientzia propioak aske egiten gaitu, emozionalki aberatsago eta inguruarekiko ditugun desioekin konektatzen gaitu. Kontzientziaren lanketa jarriko nuke urteko helburu gisa pertsona ororentzat, haurrek helduen laguntzaz, noski: garen horren zentrora bidaiatu, begiratu zein naizen, non nagoen eta nora joan nahi dudan, ez jakitea ere ondo dago, beti dugu zer ikasi, aldatzen goaz, beraz, autozainketa, autobegiratzea, autoesplorazioa oinarri, kontzientzia handitzen.

Abraham Maslowek zioen bezala, “pertsona bat aldatzeko, bere kontzientzia propioa da oinarri”. Beraz, bizitzan aldaketak egin nahi ditugunean, kontuan izan geure kontzientziaren aldaketak eragin gehiago duela. Apuntatu gym-ean, hasi fruta gehiago jaten edota mendira astero joaten, zergatik ez, baina ez ahaztu benetan barneko ongizatea gure kontzientzia propioaren lanketatik datorrela. Urte berri on!

ERREMATEA

SARA IBARGUREN

## Euripean

Ez dut gogoratzen abendu hasieran aterkirik gabe kalera atera nintzen egunik, eta ez memoria txarragatik, bereziki. Euritan hasi genuen urteko azken hilabetea eta hainbat egunez jarraian ez zuen atertu ere egin. Hainbat herritan uholde arriskua zegoela eta, Uholdeen aurkako Plan Bereziko larrialdi fasea ere aktibatu zuten, pentsa.

Lankide batek esan zidan behin horrelako eguraldiarekin telelana egin beharko genukeela, eta ez zitzaidan batere ideia txarra iruditu. Proposamen hori ezerezean geratu zen, azkenean, eta lanera joaten jarraitu genuen, txintxo-txintxo, inongo kexarik adierazi gabe. Gabonak gerturatzen ari zirela, lankide horrekin joan nintzen loteria erostera; bagenekien tokatzeko aukera nahiko utopikoa zela, baina, aizu, esperantza omen da galtzen den azken gauza. Eta esperantza horrekin jarraitu genuen harik eta zozketan gurearen guztiz bestelakoa zen zenbakien konbinazio bat garaile irten zen arte.

Eta orain hemen gaude: ez diogu lanera joateari utzi zoritxarreko dezimo bat eman zigutelako eta, ezetz asmatu? Telelanaren ideiak airean jarraitzen du, gure loteriako zenbakien gisan. Horrelako zorte txarra duzuenoi, gora bihotzak eta urte berri on.

ME MAKINA ERREMINTA MUSEOA

## Nondik gatozen ezagutu, nora goazen jakin ahal izateko

Errementarien garaitik XIX. mendera arteko industriaren bilakaera ezagutzeko museo aparta da Elgoibarkoa. Aire bidezko uhal eta poleen bitartez osatutako transmisio sistema erabiltzen zuen mekanizazio tailer batetako giroa zintzoki erreproduzitzen du. Museo bizia da, makina guztiak martxan ikus daitezke. Estatuan bakarra.

Ez galdu esperientzia ikusgarri hau bizitzeko aukera!

### Bisitak

Bisita librea, gidatua, audiogidarekin, taldeentzat, ikastetxeentzat egokitua, enpresentzat, familientzat ...

ELGOIBAR UDALA · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO · Gipuzkoako Foru Aldundia · GIPUZKOA · DANOBATGROUP · AFM cluster



### Antzinako ogibideak

Galtzear dauden antzinako ogibideen zuzeneko erakustaldiak.

### Kultur ekitaldiak

Euskal Herriko arte diziplina ezberdinak: kontzertuak, hitzaldiak, dantza ikuskizunak...

### Zientzia eta teknologia tailerrak

10-14 urte bitarteko gazteei zuzendutako Bizilabe tailerrak, erronka errealekin.

### Espazioen alokairua

Museoko espazioa erabilera anitzetarako alokatzeko aukera dago: bilerak, ekitaldiak, aurkezpenak, ikusentzunezkoak, telebista saioak etab. Leku paregabea, nortasun propioa duena!

T. 943 74 84 56
Makina Erreminta Museoa
Elgoibar, Gipuzkoa
www.museoa.eus
museoa@museoa.eus

## PUBLIZITATEA


7 MARES
Arrain eta mariskoak
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak
7 MARES Izoztuak
Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09

a3 diseinua inprimatzea
Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel.: 943-14 31 22 ▪ fax.: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ▪ www.a3zumaia.com

AL-ANON
Alkoholikoen senide eta lagunen elkartea
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa
• Eskaiola
• Pladur-a
696 72 61 88
943-14 32 61



ASESORIA ARIN
- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laborala
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 behea ▪ ZESTOA
Tel./Fax-a: 943-89 70 99 ▪ asesoriarin@asesoriarin.com

# Komentua biziberritzen: bigarren jaiotzerako lehen urratsak

2009tik hutsik dago Zumaiako Alde Zaharraren erdian dagoen eraikina. Zumaiako Udalak eta herriko eragileek espazioa biziberritzeko lehen urratsak eman dituzte, ordea. San Jose Komentua sormenerako gunea izateko bidean, egin beharreko egokitzapenen, kudeaketaren edota erabileraren inguruan egin dute gogoeta azken hilabeteotan.

Testua: **Maria Maya Manterola.**

Hamabi urte igaro dira mojak Komentutik joan zirenetik. Ordutik, eraikinari erabilera emateko proiektu ugari jarri da mahai gainean, baina Marina Bidasoro Zumaiako kultur zinegotziaren arabera, ez zuten arrankatu. Azken bi urteotan, ordea, proiektuari heldu diote Zumaiako Udalak eta herriko kultur eragileek, eta oraindik pauso batzuk falta badira ere, zehaztu dituzte oinarriak: dantza, antzerkia eta musikaren aterpe, eta aldi berean, Alde Zaharra biziberritzeko erreminta.

Azaroko plenoan onartu zuten Komentuko eraberritze lanak egiteko lehen diru partida, eta proiektuaren aurkezpena ere egin zuten abenduaren 9an, Komentuan bertan. Bidasorok azaldu du, dena den, udal gobernura heldu zirenetik ari direla Komentuko proiektuan lanean. Herritarrekin batera egin nahi zuten bide hori: “Duela 30 urte halako proiektuak egiten ziren arkitektoen kabinete batean sartuta eta politikoen artean erabakiak hartuta. Parte hartzeko prozesuek indar handia hartu dute jendearen eta politikoen arteko distantzia mozteko bitarteko gisa, eta argi geneukan horrela egin behar genuela”.

Udal gobernuak musika, dantza eta antzerkiarekin lotutako espazio bat sortzeko asmoa zuen, Komentua Kultur Topagunea, alegia. Kultur eragileekin bildu ziren hasteko eta behin, haien iritziak jasotzeko. “Denbora asko ez geneukan, proiektu hau dirulaguntza batzuetara aurkeztu nahi genuelako. Baina hainbat saio izan genituen haiekin proiektuaz hitz egiteko. Txosten batean jaso genituen haien nahiak eta iritziak, eta horrekin hasi genituen proiektua urbanistikoki egiteko pausoak”, dio Bidasorok. Miriam Romatet kultur teknikariak, ordea, gehitu du prozesu paralelo asko izan dituztela. Izan ere, eraikina babesteko neurriak hartzeko azterketa egin baitute aldi berean.

# Izan zena ahaztu gabe

Aldundiko Kultura sailera jo zuen horretarako udal gobernuak. “Fisikoki babestu beharreko hormak, leihoak eta abar aztertu zituzten, baita ukiezina zena ere”, dio Romatetek. Haren hitzetan, “bizitzeko modu baten oroitzapena” gorde behar da espazioa birmoldatzeko orduan. Bidasoro ere bat dator: “Laurehun urtean izan denaren memoria eta esentzia gorde behar dugu”, dio. Orain, esaterako, Komentuaren ondoko dorretxe baten arrastoak geratzen ote diren aztertzen ari dira. Eremu batzuk bere horretan utziko dituzte, vis a visena eta tornua, esaterako. Eraikina babestearen kontua, ordea, ez da oztopo izan udal gobernuarentzat, memoria lantzeko “aukera bat” baizik. Izan ere, Komentua babestuta dago, eta Donejakue bideko katalogoaren parte da.

Kultur arloko eragileak espazio bakar batean biltzeak dituen onurak nabarmendu ditu kultur teknikariak. Udalaren bitartekaritzarik gabe, uste du “elkarrekin egon eta koordinatzeko” benetako aukera dela: “Espazioak elkarbanatzeak eta batak bestearen berri izateak aberastasuna ekarriko digu. Tirabirak ere bai, seguruenez, hasieran egokitu beharko direlako. Ikusi beharko da nola arautu. Barne araudi bat beharko da, eta ikasiz joan beharko dugu. Hau ez da sei hilabetean ikasiko dugun gauza bat izango”. Romateten hitzetan, “ohiturak aldatzea” beharrezkoa da horretarako.

Horixe izango dute orain hizketagai eragileekin: kudeaketa. Romateten arabera, “polita” izango da prozesu hori, baina lan handia emango die, “apustu handia” delako “herriko eragile potenteenak” koordinatze hori. Bidasorok dio kultur eragileek erabiltzen dituzten eraikin ugari dituela Udalak, baina harreman horiek sakontzeko gakoa izango dela espazio bakar batean biltzea. Gainera, eragileak ahalduntzeko balioko du horrek: “Eragileei eta beraien iritziari indar gehiago emango diegu horrela, eta erabakien aldetik ere paper garrantzitsuagoa izango dute. Iruditzen zaigu hori beraientzat eta denontzat izango dela ona, ez izatea Udalaren menpe egongo den beste talde bat”.

Kultur arloari aterpea emateaz gain, oro har, herriari ere ekarpen handia egingo diola uste du Romatetek: “Alde Zaharrari bizia emango diola uste dugu, eta hori oso albiste ona da, badaukalako premia”. Bidasorok gehitu nahi izan du erabilera anitzeko bi gela ere izango direla Komentuan, herriko taldeek bilerak, erakusketak edota hitzaldiak antolatzeko erabili ahal izango dituztenak.

Azkenekoz ekainean elkartu ziren eragileekin proiektuaren inguruko segimendua egiteko, eta aurrekontuen udalbatzarrean diru partida bat onartu zela jakinarazi zieten taldeei gero. Obrak noiz hasiko diren jakitean elkartuko dira berriz ere, Bidasororen hitzetan, egoeraren berri eman eta hurrengo pausoei buruz informatzeko. Dena den, bitarte horretan kultur ekitaldiak egiteko erabiltzea gustatuko litzaioke Romateti: “Xixili Eguneko musika eskolaren kontzertua lorategian egin nahi genuen. Egunak oso laburrak dira, eta ez genuen aukerarik izan. Udaberrian nahi dugu. Obra hasiera bitarte horretan ohitura bihurtu nahi dugu etortzea, merezi du”.

**"BIZITZEKO MODU BATEN OROITZAPENA GORDE BEHAR DA ESPAZIOA BIRMOLDATZEAN"**

**"ERAGILEEI ETA BERAIEN IRITZIARI INDAR GEHIAGO EMANGO DIEGU HORRELA"**

# Etorkizuneko Komentura bisita

Zetabi arkitektura bulegoko Aitor Zubiak eman ditu proiektuaren zertzelada teknikoak. Zubiaren hitzetan, eraikinak bere balioa du, baina berri samarra da, XIX. mendekoa. Balio nagusietako bat erabileraren berezitasuna da, eta orain arte ondo kontserbatu izan da, Zubiaren arabera. Historia eta erabilpena ondo kontserbatu izana eraikinaren eraberritze proiektuan lantzen saiatu dira Zetabiko arkitektoak; erabilpeneko ezaugarri horiek mantentzen.

Gaur egungo kanpoko perimetrotik hiru sarrera izango ditu eraikinak berak; gaur egungo biei beste bat gehituko zaio. “Orain arte publikoak izan diren bi sarrera horiek mantendu egingo dira, kaperakoa eta San Jose kalekoa –Eroskiko zamalanetako gunearen ondoan dagoena–”, azaldu du arkitektoak. Beheko solairuko espazioa –tornua, vis a visen gela…– dagoen bezala utziko dute, baina zorua konpontzeko lan batzuk egingo dituzte. Behe solairu horretan berrikuntza nagusi bat izango da: San Jose kalera ematen duen horma eraitsiko dute eta lorategira eramango duen pasabidea egingo dute. “Gune hori eraikinaren sarrera berria izango da. Gune horretatik, alde batetik, sarrera irisgarria daukagu solairu guztietara, arrapalarekin eta igogailuarekin. Bestetik, lorategira joateko ere balioko du igogailuak”.

Kaperako sarrera ezaguna du jendeak, baino albo batetik beste sarrera bat gehituko diote. Zubiak azaldu du originalak ez diren elementuak direla moldatuko dituztenak: “Fatxada hori 1958koa da. Ez dugu Zumaian hain barneratuta daukazuen sarrera hori kenduko, baina duela gutxikoa denez, moldatzeko aukera badaukagu. Kaperan ezarriko den auditorioaren erabilera asko hobetu dezakegu horrela”. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare sailarekin kontrastatu ondoren hartu dute erabakia.

Hortik trantsizio gela batera sartu ahal izango da: “Gaur egunean beheko koroa deitzen zaion horretara emango du, elizarekiko paraleloa den espazio batera. Hortik ere auditoriora sartu ahal izango

Aitor Zubia, Zetabi arkitektura bulegoko kidea.

**TALDEEN ESKAKIZUN GUZTIAK TXERTATZEA IZAN DA ERRONKA NAGUSIA ARKITEKTOENTZAKO**

**GAUR EGUNGO KANPOKO PERIMETROTIK HIRU SARRERA IZANGO DITU ERAIKINAK**






**Solairu bakoitzerako Zetabik egindako planteamenduak.** ZETABI ARKITEKTURA BULEGOA

da". Erabilpena errazteko trantsizio espazio horiek beharrezkoak dira, arkitektoaren arabera. Solairu horretan bertan, jantokia bere horretan mantenduko dute: "Karmeliten komentuan hogeita bat mojarentzako lekua zegoen teorian, eta hemen jaten zuten. Gune berezi modura mantentzeko, sabaia indartsua egin zuten, zutaberik ez jartzeko; habe batzuek eusten diote". Sabaiko egitura hori indartzea izango da egingo duten aldaketa bakarra.

Patiora irteera izango du lehen solairu horrek, eta arkitektoak azaldu duenez, ez estaltzeko erabakia hartu dute. Haren hitzetan, barne espazio modura jarriz gero, "eraikinaren xarma eta konfigurazio originala" aldatuko lirateke. Auditorioa eta hari loturiko erabilpenerako espazioez gain, aterpetxea kokatuko dute lehen solairu horretan. Aterpetxeak emango dituen aukerak azaldu ditu Zubiak: "50 pertsona jaso ahal izango ditu. Autobus bete pertsona izan zen neurria: erromesentzat, udan datozenentzat, trukeetarako…". Patioaren dimentsio bereko plazatxo batera irten ahal izango da aterpetxetik.

Bigarren solairuan kokatuko da Musika Eskola. Korridoreko trenkadak bere horretan utziko dituzte: "Nahiko egitura berezia osatzen dute. Egurrezko entramatua da, baina aldi berean, trenkadak ditu. Bi solairu oso konektatzen ditu. Estetikoki garrantzitsua dela uste dugu, Komentuko elementu ikonikoa baita korridorea". Zubiak azaldu du antzeko eraikinetan klaustroa egoten dela, baina ez dela Mojaxarren Komentuko kasua. "Gelak elkartzen dituen korridore hori erabiltzen zuten prozesioetarako". Horregatik




**Elizaren teilatua bere horretan mantenduko dute; eguterarena, berriz, moldatu egingo dute.** ZETABI ARKITEKTURA BULEGOA

mantendu nahi izan dute azken solairuaren egitura. Sabaiko habexken gainean zazpi bat zentimetroko hormigoi kapa gehituko diote, eta, hamabi bat konektorerekin, egitura misto bat osatuko dute: “Beheko parteak zabaltzera egiten du, tira egiten du, eta hor egurrak oso ondo funtzionatzen du; goiko aldeak, berriz, trinkotzera. Hor harriak eta hormigoiak ondo lan egiten dute. Gaur eguneko egiturak lanean jarraitzeko eta horren erresistentzia handitzeko modu bat da”. Gelen banaketari eutsiko diote solairu honetan.

### Klausuraren ideia

Azken pisuan dagoen egutera 1920eko hamarkadan moldatu zen. Bi teilatu ditu eraikinak, elizarena eta eguterarena. Elizarena bere horretan mantenduko dute, elementuak nahiko ondo baitaude. Konponketa puntual batzuk egin, teilaren azpian isolatzeko materiala ezarri, eta kitto. Eguterarena gune berrienetarikoa da, eta moldatu egingo dute: “Herriko taldeei erantzun bat eman behar diegu, baina eraikina errespetatuz. Pentsatu genuen espazialki behar handienak dituzten taldeak hirugarren pisu honetan sartzea. Solairua moldatu beharko genuke, baina hau bakarrik; gainera ez da originala, aurreko mendean moldatu zutelako”. Gela zabalak izango dira, zutaberik gabekoak. Solairuari altuera emateko, altxa egingo dute teilatua, eta gaur egun horma bukatzen den eta teilatua kokatuko den altuera horren artean, sareta bat ezarriko dute. Zubiaren arabera, eguzkiaren argia kontrolatzeaz gain, mojen klausuraren ideia hori iradokiko dute horrela.

Erronka nagusia, arkitektoaren ustez, taldeen eskakizun guztiak kontuan izatea da, baina, aldi berean, eraikinaren izaera errespetatuta. “Askotan eskaera eraikinaren babesarekin talkan sartzen da, baina hori da horrelako proiektuek duten puntu polita. Uste dut nahiko txukun eman diegula erantzuna eskaera horiei guztiei, betiere, elementu bereziak mantenduta. Barrura sartzen zarenean ezin da berdina izan komentu batean edo pabilioi industrial batean egotea. Ondarean lan egitearen gauza onenetariko bat da zure lanak aurrez izaera bat baduela, eta mantentzen saiatu behar duzula”.

## **Esti Curiel,** Antzerkiko irakaslea

"Antzerkia sorkuntzatik lantzen dut nik, eta sortzeko espazio egokia izatea garrantzitsua da. Musika Eskolatik ematen ditugun antzerki klaseetara etortzen diren ikasleek ere nabarituko dute aldea. Kulturgune bat sortzea garrantzitsua da herriarentzat: argi dago sinergiak sortuko direla artisten artean, leku berean elkarlanean zaudenean, besteen proiektuen berri jakiteko aukera, zurea partekatzekoa eta elkarrekin lan egiteko aukerak areagotzen direlako. Pasillo, eskailera edota komunetan topo egindako elkarrizketen ondorioz, adibidez. Besteen berri izateko erraztasuna emango digu. Herriko edonorentzat ere kulturgileak non topatzen diren edo non aurki daitezkeen jakiteko egokia izango da. Kuriositatea, interesa edo jakin mina duen edonork nora hurbildu jakingo du, herriko arte eszeniko guztiak, edo desberdinak, behintzat, leku berean izanda. Proiektu hau eraikin fisikoaz harago doala uste dut; lantalde bat sortuko da, bakoitza bere esparruan egonda ere bakarrik ez egoteko. Talde babesa izatea lor dezakegula iruditzen zait".

## **Sofia Oria,** Musika eta Dantza Eskolako zuzendaria

"Aurten izaera juridikoa aldatu dugu eta elkartea kooperatiba bihurtu dugu. Gure beharrak dira irisgarritasuna, gelak egokituta izatea, intsonorizazioa, baliabide teknikoak… Gainera, espazio aldetik nahiko justu gabiltza (horregatik, iaz baimena eman ziguten Musika Bandaren gela erabiltzeko). Komentura joateak behar horiek guztiak aseko dituelakoan gaude. Baldintza egokiagoak izango ditugu espazio aldetik, eta zerbitzu guztiak bateratuta egoteak abantailak emango dizkigu lana edo proiektuak aurrera ateratzerako orduan. Torreberri eta Ubillos erabiltzen ditu Musika Eskolak. Ikasle guztiak espazio berean batzeak denak harremanetan jarriko ditu, eta ikasgela batetik bestera mugitzeko orduan erraztasunak emango dizkie. Eskolaren helburuetako bat herriko kultur eragile desberdinak hornitzea denez, espazio batean egoteak harremana modu naturalean ahalbidetuko du, elkarren arteko sinergiak sortuz, horrek emango dion balio erantsiarekin. Zumaian kultur dinamika handia dago, eta proiektu honekin areagotu egingo da".

## **Mila Bakedano,** Astinduko kidea

"Duela hamar urte sortu zen elkartea; lokal bat utzi ziguten, baina zeharo txikia geratu zaigu. Guretzat entseguetarako leku ederra izango litzateke, baita biltzekoa ere. Gure behar horiek beteko dituela uste dut. Kultura sailarekin harreman estua daukagu, baina horrez gain, elkarteen arteko harremanak ere hobetuko direla uste dut. Denak elkarrekin bagaude, erraztu egingo du komunikazioa. Hortik proiektu berri dezente aterako direla uste dut. Normalean saiatzen gara herriko beste elkarteekin lana egiten, eta horretan jarraitu nahi dugu. Bizitasuna ere emango dio Alde Zaharrari, eta behar du. Jendea atzera eta aurrera ibiliko da, Musika Eskolako ikasleekin bakarrik… Pentsa! Proiektua denen artean osatu dugu; espero dugu denen beharrak kubritzea. Kudeaketaren aldetik parte aktiboa izango gara; batzorde bat sortuko dugu parte hartzen dugun elkarte guztien artean, eta hor adostuko ditugu gauzak. Ideia hori da, baina martxan jartzen denean ikusiko dugu egokia den edo ez". ▬

# Burua bideratzeko tekniketan aditua

**Arantxa aramendi,** kontrol mentaleko ikastaroaren arduraduna

Zer behar dugu gustura egoteko? Zerk egiten digu mesede? Dirudiena baino zailagoa izaten da galdera horiei erantzutea, sarritan. Bada, gure barnera begiratu eta erantzuna aurkitzeko gai izatea da, hain justu, kontrol mentalaren helburu nagusietako bat, Arantxa Aramendiren arabera.
Testua: **Jabi Gonzalez Toston.** Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño.**

Kontrol mentala metafora baten bitartez azaltzeko, honako hau ere ekarri digu Aramendik: "Burua tximino bat bezalakoa da. Ezin du geldirik egon, egun guztia dabil gora eta behera, eta, zer eginik ez badu, bila arituko da. Hori kudeatzen asmatzea da kontrol mentala; burua gure nahien arabera bideratzen jakitea, zeregin hori kontzienteki ematea, zertan pentsatu behar duen esatea eta egitea. Esan gabe doa kontrolatzen dugun hori geure burua dela, ez besteena".

40 urte inguru daramatza Aramendik kontrol mentaleko eskolak ematen, baina, bere hitzetan, bera ez da irakaslea; dakiena "partekatu" baino ez du egiten. Ez du inork idealizatzerik nahi, ez delako inor baino gehiago: "Logikoa den bezala, ikastaroa hasi berri duen pertsonak baino gehiago jakingo dut kontrol mentalaren inguruan, baina amaitutakoan, nire maila berean egongo da. Agindutakoa betetzen badu, noski".

Hala, zortzi asteren barruan, erlaxatzeko hainbat teknika barneratu ohi dituzte ikastaroa jasotzen dutenek; izan ere, erlaxazioa ezinbestekoa da burua menperatzeko. Teknika horiek zertarako balio duten eta prozedura nolakoa den azaltzeaz arduratzen da Aramendi. Ikasleek etxean praktikatu beharko dituzte ondoren, eta bigarren zeregin hori izaten da betetzen zailena. Ikastaroko arduradunaren arabera, gutxitan egiten dute. Horregatik, ez du aurreko klaseetan landutakoa errepasatzeko ohiturarik, salbu eta ikasleren batek etxean praktikatu eta zalantzarik baldin badu. Orduan, bai, dituen zalantza horiek argitzen ahaleginduko da.

Klaseei erreparatuta, koaderno bati jarraituta ematen ditu. Bertan ditu jasota kontrol mentaleko teknikak. Klase bakoitzean hiru edo lau atal azalduko dizkie, loa hobetzeko helburua dute batzuek, azterketei begira kontzentrazioa hobetzea beste batzuek, handia da aniztasuna. Hori bai, klase guztiak berdin abiatuko dituzte: kandela bat pizten eta lehen egunean erakutsitako erlaxazio teknikarekin.

Ikastaroak ostegun arratsaldeetan izaten dira Forondan, sei eta erdietatik zortzietara. Doakoak dira, nahiz eta kobratzea proposatu izan dioten. Aramendik argi du, ordea, berak ez duela sosik nahi trukean, borondatez ematen dituela. Ikasle kopurua mugatuta dago, hori bai. Hogei pertsonako taldeak izaten zituen lehen eta hamahirukoak orain, pandemia dela eta murriztu egin baitute. Taldea bakarra izan ohi da eta eskainitako plazak bete egiten dira beti. Dena den,

irrimarra

kanpoan jende asko geratzen bada, beste talde bat ere antolatzen dute beste data batzuetan.

Kontrol mentalean adituak aitortu digu, halaber, nahiago duela klasetik at ikasleekin harremanik ez izan. Baina egin du salbuespenik: "Hiru ikaslerekin baino ez dut harremana mantendu. Zarauztarra bat, zestoarra beste bat eta zumaiarra hirugarrena. Ikastaroan ezagutu genuen elkar eta tarteka trago batzuk hartzeko biltzen gara". Aramendik dio ez duela salbuespen gehiago egiteko asmorik; izan ere, hiru nahiko iruditzen zaizkio. Gainera, zenbaki garrantzitsua da kontrol mentalean.

### 3 zenbakia

Esan bezala, ikastaroaren lehen egunean azaldutako erlaxazio teknika da erabiliena eta 3 zenbakia ezinbestekoa da. Sinplea da ariketa: lehenik eta behin, eroso ipini beharra dago; jarraian, begiak itxi, arnasa sakon hartu eta buruarekin 3 zenbakia hiru bider irudikatu. Ondoren, gauza bera bi eta bat zenbakiarekin errepikatu beharko da, hiru aldiz beti.

Esan behar da, halere, atzerako kontaketa hirutik hasteko ariketa oinarrizkoa dela. Buruan barrena sakonago iristeko, 25 zenbakitik, 50etik edota 100etik hastea komeni da. Hori bai, atzeraka beti, zeren eta Aramendik azaldu digunez, atzeraka zenbatzeak sakontasunera eramaten du; aldiz, aurreraka egiteak aktibatu egiten du norbanakoa.

Oinarrizko erlaxazio teknikaz gain, hirua oso presente dagoen teknika gehiago ere erakutsi dizkigu. Unibertsitateko edota lan eskaintza bateko azterketen atarian kontzentrazioa eta emaitza hobetzen lagundu dezakeen hiru hatzen teknika, esaterako. Hau ere sinplea oso: bi eskuetako baten lehen hiru hatzen ermamiak elkartzean datza; alegia, hatz lodia, erakuslea eta erdikoa. Hori eginda, burua doitzea lortuko dugu eta ikasitakoa errazago oroituko dugu.

### Lehen eskolak

Atzera begira jarrita, kontrol mentalaren berri nola izan zuen ere azaldu digu Aramendik. Lagun bati esker ezagutu zuen. Lagunak Donostian hartzen zituen klaseak eta berak ere izena ematea erabaki zuen, beti erakarri izan dutelako horrelakoek: "Fededuna naiz eta beti sinetsi izan dut barne energietan. Guztiok ikusezina den indar berezia dugula pentsatzen dut eta nirea ateratzen ikasi nahi nuen". Klaseak hartzen hasita, on egiten ziotela igarri zuen eta pentsatu zuen gertukoekin ere partekatu beharra zuela: "Niri on egiten bazidan, zergatik ez zion onik egingo ingurukoei ere? Gainera, ingurukoak ondo egoteak niri ere mesede egingo zidan. Azken finean, adiskidetasunean bizi nahi dut".

## Arantxa Aramendi

- **Adina:** 74 urte.
- **Ikasketak:** oinarrizkoak, eskola graduatua.
- **Lanbidea:** asko izan ditut. Bulegoko mandataria, etxekoandrea eta arropa, bitxi eta etxe saltzailea, besteak beste. Orain erretiratuta nago, baina kontrol mentaleko eskolak ematen jarraitzen dut.
- **Kontrol mentaleko ikastaroen arduraduna ez banintz…** Denetik egin dut, ez nuke beste bat aukeratuko.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut…** Familiarekin egotea.

Hasieran, etxean edo senarrarekin zuen arropa dendan hasi zen klaseak ematen. Alaba eta haren lagunak izan ziren bere lehen ikasleak. Gero, inguruko negozioetako langileei ere eman zizkien kontrol mentaleko eskolak. Foronda kulur etxean, berriz, duela 25 urte hasi zen. Lagun batek proposatu zion eskaera egitea: “Utziko zidatela zioen; nik, ordea, ez nuen itxaropen handirik, baina badaezpada eskaera egin nuen. Lagunak arrazoi izan zuen azkenean, txoko bat utzi zidaten”.

Erretiroa hartu arte, larunbat goizean ematen zituen klaseak lanarekin uztartu ahal izateko. Gero, ostegun arratsaldeetan, esan bezala. Noiz arte jarraituko duen ez daki. Iaz esaterako, ez zuen ikastarorik eman COVID-19a dela eta.

Aurten berriro ekin dio eta datorren urtean taldea berriro osatzeko asmoa badago animatuko da. ■

Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna *aldizkaria@baleike.eus* e-posta helbidera bidali urtarrilaren 21a baino lehen. **Saria:** TIPITAKIN bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.




Abenduko Baleike aldizkarian Baleike pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 17. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Miren Esther Osa Altzibar** bazkidea izan da irabazlea.

# MARKETIN ESTRATEGIAK

- MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO PLANEN DISEINUA ETA GARAPENA.
- ONLINE ETA OFFLINE ESTRATEGIAREN PLANIFIKAZIOA ETA EXEKUZIOA.

GUKA ZERBITZUAK

Soreasu 1, 20730 Azpeitia (Gipuzkoa) 943-81 38 41 • gukazerbitzuak@ukt.eus

# Goizeko presak

**MIREIA CENTENO**
PSIKOLOGOA

Familia askoren egunerokoan, goizeko lehen ordua nahiko momentu gatazkatsua izaten da. Esnatu, jaiki, gosaldu, jantzi, hortzak garbitu, jertsea zikindu, kamiseta aldatu… eta, gainera, eskolara garaiz iritsi. Ez da erraza momentu hau kudeatzea.

Egunaren hasierak asko baldintzatzen du ondoren biziko duguna. Haurren kasuan, asko nabaritzen da nork hasi duen eguna lasai eta nork ez, eskolan azaltzen duten motibazioa, umorea eta tira-biren arabera. Haur txikienek, adibidez, gurasoengandik banantzeko orduan, zailtasunak izaten dituzte etxetik haserre atera badira. Segurtasuna behar dute, eta lotura seguru batek gatazkak egoki kudeatzea eskatzen du.

Gurasoentzat ez da erraza, eguneroko erritmoak asko eskatzen digulako. Beraz, zer egin dezakegu momentu hau sinplifikatzeko?

Lehenago jaiki. Logikoa da, baina ez dugu egiten. Azken 10 minutu horiek ohean denontzat dira goxoak. Batzuetan agian bai, saiatzen gara, baina patxadaz hartzen ditugu gauzak eta, azkenean, berdintsu bukatzen dugu.

Errutinei jarraitu. Haurrek ez dute planifikatzeko eta antolatzeko gaitasuna guk bezain garatua. Guk oso argi ditugu goizean zehar jarraitu beharreko pausoak, baina beraiek ez. Horretarako oso lagungarrik dira errutina taulak: irudikatu argazkiekin edo marrazkiekin pausoz pauso goizean zehar egin behar dutena ordenan, horrela beraiek jakiteko, barneratzeko eta pixkanaka beraien denbora antola dezaten.

Emozioak onartu eta lagundu. Presaka gabiltzanean erabakitzen dugu ez gaudela emozioak laguntzeko moduan, eta gure seme-alabaren bat negarrez hasten bada galtzerdiak molestatzen diolako, ez dugu hartzen denbora hori konpontzeko, galtzerdia jantzi behar du eta kito. Horrek gatazka luzatzea eragiten du; aldiz, galtzerdiak molestatzen diola onartuz gero, nahiz eta galtzerdia jantzi behar duen (agian ez dagoelako beste aukerarik) eta onartu behar duen, bere emozioa entzunda geratuko da eta gatazka bukatzeko aukera gehiago izango dugu.

**HAURREK EZ DUTE PLANIFIKATZEKO ETA ANTOLATZEKO GAITASUNA GUK BEZAIN GARATUA**

Autonomia sustatu. Ohitura handia dugu gure seme-alaben atzetik ibiltzeko dena guk egiten. Askotan guk uste baino gaitasun gehiago dituzte gauzak egiteko eta ez egitearen ondorioak jakiteko. Nahiz eta guk nahi dugun moduan ez egin, gauzak beraien kabuz egiten utzi behar diegu.

Haurraren beharrak kontuan izan. Ez dituela bakeroak jantzi nahi, txandalarekin joan nahi duela egunero, ez duela nahi koletarik... Bere nortasuna garatzen ari da eta horrek guztiak horretan eragiten du. Utziozu aukeratzen ahal duen guztia eta utzi zure beharrak alde batera.

Bukatzeko, kontuan izan eguna ondo hastearen garrantzia eta gogoratu garai hauek guk uste baino azkarrago pasatzen direla.

## ELURRA MENDIAN

Zenbat animalia ikusten dituzu?

## SUDOKU

Ipini sudoku bakoitzeko letrak dagokien tokian. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta lau laukiko area bakoitzeko.

| | | | |
|---|---|---|---|
| A | | | Z |
| | | P | |
| | Z | | |
| O | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| B | | | I |
| | | | |
| L | | B | |
| | A | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| A | P | | |
| | | A | |
| | | | I |
| | | Z | |

# DOMINO ZATIA

Bete itzazu fitxetako espazio zuriak, domino zati hau zuzena izan dadin.



# IZEIA

- Erreparatu Gabonetako zuhaitz honen apaingarriei. Bola guztiek dute parea, salbu eta batek. Zein da?
- Zein ederrak diren elurrezko panpinak. Zenbat ikusten dituzu? Eta zenbat Olentzero?

**Soluzioak ikusteko:**
**www.plazanbazan.eus/**

## PUBLIZITATEA



# "Geoparkeak familia erraldoi bat gara, mundu hobe baten alde egiten duten ameslariak"

**ASIER HILARIO** NAZIOARTEKO ONDARE GEOLOGIKOAREN BATZORDEKO PRESIDENTEA

Azaroaren 18tik 20ra Zumaiako Amalur egoitzan, Arritokieta azpian, nazioarteko ondare geologikoaren inbentarioaren oinarriak eztabaidatu ziren. Erronka ez da txikia. Horretarako, zazpi lurralde desberdinetako adituak bildu ziren hiru eguneko bilera luze batean. Kokalekuak ezin zuen aproposagoa izan. Bilera gelatik Algorriko kala txikia ikusi zitekeen.

Testua eta argazkiak: **Euskal Kostaldeko Geoparkea**

Asier Hilario Geologian doktorea, Euskal kostaldeko Unesco Geoparkearen koordinatzaile zientifikoa eta Nazioarteko Ondare Geologikoaren batzordeko presidentea izan zen bilera horren antolatzailea.

**Zumaiako flysch-aren bilakaera gertutik jarraitu dugunok jakin badakigu arrokek ere balio handia izan dezaketela, baina noiz eta nola jaio zen ondare geologikoaren kontzeptua?**

Ondare geologikoaren kontzeptua ez da berria, baina zientziaren eta kontserbazioaren ikuspegitik gaztea da. Kontzeptua oso sinplea da. Erromatarren garaitik ondo jakin izan dugu lurraldearen baliabide geologikoak ondo ezagutzeak duen garrantzia. Mineralak, ura, arrokak, arrisku naturalak... menperatzea ezinbestekoa da edozein gizarteren garapenerako. 1980eko hamarkadan hasi ziren ondare geologikoaren inguruko lehen ideiak garatzen. Lehen pausoa izan zen aitortzea zenbait elementu geologikok, ustiapenaren balioaz haratago, balio propioa zutela . Elementu horiek gure lurraren memoria dira eta natur ondarearen zati banaezinak dira. Galdu nahi ez baditugu, gizarteak elementu horiek zaindu eta babesteko tresnak baliatu behar ditu. Ideia hori lehen aldiz argi eta garbi 1991n Digneko (Frantzia) "Lurraren memoria" deklarazioan argitaratu zen. Hori izan zen lehen mugarri garrantzitsua.

**Zer errekonozimendu dauka egun nazioartean Ondare Geologikoak?**

Digneko deklarazioa egin zen momentutik munduko lurralde bakoitzak bere estrategia eta politikak jarraitu ditu. Ideiaren garapena eta lurreratzea oso heterogeneoa izan da. Nazioartean ondare geologikoaren errekonozimendua batik at Unescoren bi figura desberdinetatik dator: munduko ondarea eta geoparkeak.

Munduko ondarearen konbentzioa 1975ean onartu zen. Munduko ondarea kulturala edo naturala izan daiteke. Naturalaren barruan 252

leku daude eta horietatik 93 balio geologikoarengatik izendatu dira. Izendapen horretan nazioarteko adibide bakarrak edo onenak bakarrik aitortzen dira. Horietakoak dira, besteak beste, Ameriketako Estatu Batuetako Grand Canyon edo Kanaria uharteettako Teide sumendia, adibidez.

Geoparkeen programa askoz berriagoa da. Geoparkeak 2000. urtean hasi ziren, baina Unescoren aitorpena 2015. urtean iritsi zen. Gaur egun 169 geoparke daude mundu mailan, horietako bat gurea, Euskal Kostaldeko Geoparkea. Geoparkeek nazioarteko garrantziko geologia izan behar dute, bai, baina hori baino askoz ere gehiago dira. Geoparkeak ondare geologiko hori kultur eta natur ondarearekin batera erabiliz garapen jasangarria bultzatzeko tresnak dira. Hori da Unescok izendatzen duena, hau da, zientzian, hezkuntzan eta kulturan oinarri duen garapen proiektua. Maiz, geoparkeak lurralde zabalak izaten dira. Gure geoparkea sareko txikienetako bat da.

**Zergatik da garrantzitsua ondare geologikoa babestea eta ikertzea?**

Ondare geologikoak gure lurraren memoria gordetzen du, urrunekoa zein gertukoa. Ondare geologikoa babestea eta ikertzea ezinbestekoa da gure planetaren funtzionamendua ulertzeko eta gaur egun ditugun ingurumen erronkei behar bezala aurre egin ahal izateko. Pagoak, txoriak edo igelak babestea oso ondo dago, baina substratua kontuan izaten ez badugu, naturaren ikuspegi partziala soilik izango dugu.

Ondare geologikoan lan egiteko lehendabiziko pausoa inbentario bat egitea da, hau da, gizarte bezala balio altua ematen diegun elementu horiek aukeratzea. Horren ondorioz etorriko dira kontserbazio politikak, hezkuntza edo ondo planifikatutako geoturismoa. Azpimarratzekoa da munduan zehar bisitari kopuru handiena erakartzen duten guneak paisaia geologikoak izaten direla maiz. Aurreko adibideekin jarraituta, Teideko parke nazionalak, Kanaria uharteetan, Granadako Alhambrak, Bilboko Guggenheimek edo eta Madrilgo Prado museoak batera bezainbat bisitari jasotzen ditu urtean.

**2019. urtean Nazioarteko Zientzia Geologikoen Batasunaren (IUGS) Ondare Geologikoaren Batzordeko lehendakaria izendatu zintuzten. Zer da erakunde hori?**

International Union of Geological Sciences (IUGS) lur zientzietan nazioartean dagoen erakunde nagusia da. Munduko 121 lurraldek osatzen dute eta milioi bat zientzialari baino gehiago bateratzen ditu. 1961. urtean sortu zen eta ordutik geologia zientziaren oinarriak eta garapena definitu ditu. IUGSk zenbait batzorde ditu geologiaren diziplina garrantzitsuenetan nazioarteko koordinazioa sustatzeko eta adostasunak lortzeko.

Ondare Geologikoaren nazioarteko batzordearen parte hartzaileak Algorriko K/Pg muga bisitatzen. Argazkiaren erdian Stanley Finney geologo amerikarra eta IUGSko idazkari nagusia. 2009. urtean etorri zen lehen aldiz "Flysch, Haitzen Hitza" dokumentala grabatzera eta ordutik harreman estua izan du gure geoparkearekin.

Geoparks
Geoparkea

Ikaragarrizko ohorea da niretzat IUGSren barruan ondare geologikoaren batzordea zuzentzea. Era batean, azken urteetan gure geoparkean egindako lanaren errekonozimendu handia ere bada. Inoiz ez nuen pentsatuko horrelako aukera izango nuenik.

**Zein dira Ondare Geologikoaren Batzordeko helburu nagusiak? Zergatik da beharrezkoa batzorde hori?**

Gure helburu nagusia munduan dauden balio altuko interesgune geologiko nagusiak "IUGS Global Geosite" bezala izendatzea da. Geologia zientziaren garapenean garrantzi berezia izan duten lekuak eta nazioartean eredugarri edo erreferentzia diren lekuak izendatuko ditugu. Interesgune geologiko horiez gain, nazioarteko garrantzia duten bilduma geologikoak eta eraikuntzako harriei ere errekonozimendua emateko programak garatzen ari gara.

IUGSk leku bati nazioarteko aitortza zientifikoa ematen dionean, fokua jartzen dio. Horren ondorioz, kontserbazioa, hezkuntza edo geoturismoa ardatz duten proiektuak gara daitezke, baina hori ez da gure lana. Horrelako zerbait gertatu zen Zumaian 2007. urtean Itzurun hondartzako bi estratotipoak izendatu zirenean. Geroago, bertako instituzioek bultzatuta, biotopo babestua etorri zen eta pixka bat geroago, geoparkea.

Geologiaren beste diziplinetan bezala, IUGSk bere programa behar du nazioarteko erreferentziak finkatzeko, baina, horretaz gain, Unescorekin eta nazioarteko beste erakunde zientifikoekin elkarlan estuan jarraituko dugu helburu komunak lortzeko.

**Nor bildu zineten Zumaian egin zenuten bilera horretan? Eta zein zen bilera horren helburu nagusia?**

Ondare geologikoaren batzordeak 60 kide inguru ditu mundu guztian. Bilera horretan lantalde desberdinen arduradunak, batzordeko idazkaria eta ni neu bildu ginen. Horretaz gain, IUGSko idazkari nagusia den Stanley Finney ere Kaliforniatik (Ameriketako Estatu Batuak) etorri zen batzorde honek duen erronka handi horren aurrean IUGSren babes sendoa adierazteko. Bilera horretan AEBko, Alemaniako, Frantziako, Txinako, Indiako, Marokoko eta Espainiako ordezkariak zeuden. Azpimarratzekoa da guztiek pandemia garai honetan Zumaiara etortzeko egin zuten apustua.

Urte osoa modu digitalean lanean egon eta gero, bileraren helburua zen elkar ezagutzea eta batzordearen dokumentu estrategikoak onartzea. Besteak beste, adostu genuen IUGS Global Geosite programa berria habian jartzeko inpaktu handiko abiapuntua behar dugula, eta, horretarako, "The first 100 IUGS Global Geosites" (Mundu mailako lehen 100 IUGS geolekuak) zerrenda osatuko dugu. Gauzak ondo badoaz, zerrenda hori datorren urteko udazkenean aurkeztuko dugu hemen, gure geoparkean antolatuko dugun nazioarteko kongresu zabal batean.

Eskoziako Highlandseko Moine Thrust adibide ezin hobea da azaltzeko IUGS Global Geosite bat zer den. Leku honetan 1884. urtean Ben Peach eta John Horne geologoek lehen adiz definitu zuten lerradura mantu bat zer zen (arroka zaharragoak arroka berriagoen gainean kokatzen direnean). Aurkikuntza horrek guztiz baldintzatu zuen geologian orogenoen ulermena.

**"ONDARE GEOLOGIKOAK GURE LURRAREN MEMORIA GORDETZEN DU, URRUNEKOA ZEIN GERTUKOA"**

**"HELBURU NAGUSIA MUNDUKO BALIO ALTUKO INTERESGUNE GEOLOGIKOAK IZENDATZEA DA"**

AEBetako Gran Canyon da nazioartean ondare geologikoaren ikono nagusietako bat.

**Nola aukeratzen dira munduko lehen 100 interesgune geologikoak?**
Lehenik eta behin, "IUGS Global Geosite" bat zer den eta zer ez den argitu behar izan dugu. Garrantzitsua da mundu guztian ideia berdinarekin lan egitea. Horretarako, 20 pertsonak hiru hilabetetan eztabaida sakonak izan dituzte eta jada adostu dugu. Orain, lehen 100 horien distribuzioa lantzen ari gara, eta mundu guztiko zientzialariak kontaktatzen. Hasieran, lehen 100 horiek bi baldintza hauek bete behar dituzte: batetik, distribuzio geografiko zabala izan behar dute; eta, bestetik, mota guztietako geologi interesguneak egon behar dute.

Bi parametro horiez gain, oreka instituzionalak eta pertsonalismoak ere asko zaindu behar ditugu, ahalik eta errekonozimendu zabalena izan dezan.

Esaldi bakar batean erantzun badaiteke: adostasunak lortzen. Hori da lan honen erronka nagusia.

**2005. urtean hasi zinen Algorri interpretazio zentroan lanean. Hasiera-hasieratik zure ibilbidea Zumaiako flyschari egon da lotuta. Zer da zuretzat erronka berri eta zabal hau?**
Lehenik eta behin, poza; orain arte guztion artean landu dugun proiektu honi aitorpen handia ematea delako. Eta, bigarrenik, errespetua eta lana egiteko ilusio handia. Erronka berri honek nazioarteko ikuspegi zabala eskatzen du eta hori oso aberasgarria izango da. Jakin ere badakit horrelako erronkek esposizio handia dutela, baina uste dut aurrera egiteko behar diren baliabideak eskuan ditudala: lantalde ona eta fidela, babes instituzional sendoa eta lan egiteko gogoa.

Ziur nago proiektu honetan azken urteetan Euskal Kostaldeko Geoparkean lankideekin ikasitako gauza asko oso baliagarriak izango direla. Horietatik, talde lana izango da garrantzitsuena.

**Zergatik da garrantzitsua Zumaiako flyscharentzat nazioartean lan egitea? Zer paper jokatzen dute Geoparkeak eta Unescok esparru honetan?**
Nazioartean konektatuta egotea ezinbestekoa da bertan lana txukunagoa egiteko, ideia berriak lantzeko, ikasteko eta, aldi berean, hemen ikasitakoa partekatzeko. Nazioarteko errekonozimendua izatea balio ukaezina da. Modu batean, gure lurraren enbaxadore lana ere egiten dugu. Inoz ez dakizu noiz eta nola etorriko den lan guzti horren onura, baina, zalantzarik gabe, gurea bezalako proiektu batean sinesgarritasuna oinarrizko zutabe bat da.

Geoparkeak familia erraldoi bat gara. Mundu hobe baten alde egiten duten ameslariak gara. Gure eguneroko gizartea eraikitzeko aukera desberdinak ditugu. Geoparkeak lurrarekin, naturarekin, zientziarekin, kontserbazioarekin, kulturarekin eta hezkuntzarekin konektatzen gaitu eta bertakoen artean elkarlana sustatzen du. Geoparkeek etorkizun hobe baten alde egiten dute, horregatik gaude hemen. ▬

943-86 20 83
ORRAZTEGI
ZUMAIA

JUARISTI
jatetxea
Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua
Basadi auzategia, 10
tel. 943-05 05 77

KABI
Patxita Etxezarreta, 15
943-11 74 27
TABERNA

Kaithermik S.L.
Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak
Santiago auzoa, 20
Tel./faxa: 943-86 03 20

kalari
Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

MAIAUR
ZUMAIA
Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

CROISSANTERÍA
pizzak
hanburgesak
bokatak...
Marina
Baltasar Etxabe, 2
Tel. 943-86 22 46

maximus PENCIL
estudio decoración
Julio Beobide, 2 · ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan

MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea
Urola plaza, 21
tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com
www.mendi-ondo.com

"Muagi"
errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia
RPS: 034/97
Aita Mari, 3. blokea · tel. 943-86 16 91

OLIDEN
eraikuntzak eta arkitektura
bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK
Etengabeko garabi zerbitzua
636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)
Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com
Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com

OSA
BERNIZATUAK
Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea
Estazioko kalea, 12 · tel. 943-86 14 12 · 686 36 41 49

OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA ,S.L.
Joxe Mari Korta Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak
Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia,1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi
Garbiketak
Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa
Basadi, 3-A
tel. 943-01 63 53

# Aldaketaren lekukotasuna

1.500etik gora argazki igo ditu Baleike Kultur Elkarteak Wikimedia Commons plataformara. Lehen txanda honetan, gehienbat, 1994tik 2011ra bitarteko argazkiak igo dira. Bilduma horretatik abiatuta, artikulu sorta bat argitaratuko dugu aldizkarian datozen hilabeteotan.

Testua eta argazkiak: **Baleike.**

Kontaezinak dira Baleikeren ia 28 urte hauetan ateratako, inguratutako edo pilatutako argazkiak. Analogikoak lehenbizi, 24 edo 32 argazkiko karreteen bidez jasotzen zirenak; digitalak XXI. mendetik aurrera. Milaka eta milaka irudi horietan herriaren eraldaketa eta herritarren bizimoduak, historiak eta istorioak jaso ditu Baleikek. 1.500etik gora argazki igo ditu orain Baleikek Wikimedia Commons webgunera.

Dagoeneko existitzen ez den Zumaia baten lekukoa ere bada *Baleike*ren argazki artxiboa; aldizkariaren lehen urteetakoak bai, behintzat. Arranplako garabiarekin egindako fotomuntaketa bat zeraman *Baleike* aldizkariaren lehen zenbakiaren azalak. Herriko beste paraje edo elementu askoren moduan, garabi hori historiara pasa da, eta herritarren memorian, argitalpenetan eta, nola ez, argazkietan mantentzen dira.

*Baleike*ren abentura hasi zenean ez zegoen kirol porturik, Puntanoetarik edo Alai auzunerik; gaur Ondartxo plaza dagoen lekuan Arbillagaren fabrika zaharra zegoen, eta Carmelo Unanueren pabilioi handiak zeuden orain Ardantzabideko etxebizitzak dauden lursailetan. Gernika parkea den zabalguneko atzealdean eta Etxezarreta kalearen artean fabrika zaharrak zeuden, baita Estazioko auzunean ere. Faktoria horietatik gehienak desagertuta daude dagoeneko, eta etxebizitzek edo saihesbide batek hartu dute haien lekua.

Ezkerretik eskuinera, kirol portuaren aurkako manifestazioa, barrako obren hasiera eta Iñaki Etxaniz intsumisoaren epaiketa Donostian.

38. orrialdean, Aginagalde taberna zegoen eraikinaren eraistea, Erribera kalean.

Beste Zumaia bat zen 1990eko hamarkadako hasierakoa. Ez biziagoa derrigor, baina bai desberdina. Herria kalera atera zen behin baino gehiagotan Santiagoko paduran kirol portu bat egin nahi zutelako (kirol portuko manifestazio batekoa da argazki artxibo digital honetako lehen argazkia, 1994ko ekainekoa). Herriaren erdia kirol instalakuntza hori egitearen alde zegoen, eta beste erdia aurka. Zumaiako barra berria ere garai hartan egin zuten, eta hark ere dezenteko iskanbila sortu zuen. Protesta ekitaldiak izan ziren, manifestazioak, elkarretaratzeak, debateak, alde zein kontra zeudenen iritziak, kirol portuko lehen induskatzeak, lehen harria eta inaugurazioa, olatuek barran eragindako txikizioak eta abar. Hori guztia islatuta geratu da artxibo honetan.

Intsumisioaren gaia ere puri-purian zegoen *Baleike* sortu zenean. Derrigorrezko soldaduskara joan nahi ez eta intsumiso egin ziren herritar batzuk, epaituak izan eta espetxean bukatzeko arriskuarekin. Iñaki, Ismael, Juan Luis..., eta haien inguruan, edo haien erabakia bultzatzeko sortu zen mugimendu antimilitarista, haiek ere izan zuten tartea aldizkarian, eta, nola ez, irudi bilduma digital honetan.

Une latzak, gogorrak, tristeak ere bizi izan dira herrian urte hauetan guztietan. Euskal gatazkak ere kolpatu du Zumaian: Joxe Mari Kortaren hilketa, Txitxarro diskoteka birrindu zuen eztanda, eta bi atentatu haien ondoren izandako manifestazioak eta protestak; baita Xabier Kalparsororen hilketaren ondoren izandako ekintzak, eta egia jakiteko familia batek erakutsitako grina.

Bizitzan gertatu ohi den bezala, pozerako uneak ere izan dira, eta horietako asko kirolaren bidez heldu ziren: emakumezkoen *Telmo Deun*en garaipen sorta Kantauri itsasoan, Kontxako bandera eta guzti; Oier Aizpuruaren urrezko bost dominak Munduko maratoi txapelketetan; mailaz igotzeko Ostadarrek eta Zumaiakok Lasarte-Orian jokatutako partida, eta Eneko Arronak azken minutuan sartutako gola; errepidean eta ziklo krosean ibili ziren herriko txirrindulariak; eskubaloia, saskibaloia, karatea, mountain bikea... Kirolak Zumaian duen garrantzia nabari daiteke bilduma hau ikusita.

Eta kirolaz esaten dena, kulturaz ere esan daiteke. Kultura maite duen herria da Zumaia, eta kulturako arlo desberdinetan dabiltzan edo aritu diren talde eta banakakoen irudiak jasotzen dira argazki artxiboan.

Herritarrak beraiek izan dira beti aldizkariko protagonistak, eta herritarrak, zumaiarrak, izan dira urte hauetan guztietan jarraitzeko bultzada eta sustengua eman dutena. Eta, ezin zen bestela, herritarrak, zumaiarrak, eta aurki daitezke artxiboan: tabernetako jabeak eta taberna horietako bezeroak; abenturazaleak, ikonoklastak, artistak eta artistak diren hobiratzaileak; jubilatuak eta ikasleak, gazte batzordeko kideak eta Nagusilan elkarteko presidenteak; alkateak, zinegotziak eta alderdietako jarraitzaileak; bertsolariak, bertsozaleak eta bertsoak gogoko ez dituztenak... Horiek guztiek osatzen dute herri bat eta horiek guztiak daude, nolabait, islatuta artxiboan.

**Denontzat erabilgarri**

Argazki artxiboa ordenatzeko, sailkatzeko eta, amaieran, Wikimediako webgunera igotzeko lan hau Tokikomek eta Wikimediaren artean izandako akordio baten emaitza da. Aurretik, tokiko beste hedabide batzuek erabili dute bide bera argazki hauek erabilgarri jartzeko. Iazko apiriletik ekainera bitartean egin genuen artxiboa osatzeko lan hau. Lehen lana argazkiak bilatzea eta aurkitzea izan zen, digitalak zein paperezkoak, leku eta euskarri desberdinetan aurkitzen zirelako. Behin argazkiak inguratuta, galbahe lana hasi zen: horiek sailkatzea, ordenatzea eta kronologikoki eta tematikoki sailkatzea izan zen hurrengo lana. Horretarako, aldizkari zaharretara jo behar izan genuen. Argazki bakoitza bere momentuan kokatzeko balio izan zuen horrek, baita argazkietan agertzen diren pertsona asko identifikatzeko ere. Hala, Zumaiak urte hauetan guztietan izandako bilakaera ikusteko aukera paregabea eskaintzen du argazki artxibo honek.

Argazkiak digitalizatu eta artxiboa osatzeko lehen txanda honetan 1994. eta 2011. urte bitarteko irudietan zentratu da *Baleike*, baina urte horretatik aurrerako argazki batzuk ere sartu dira. 1994tik

**BESTE ZUMAIA BAT ZEN 1990EKO HAMARKADAKO HASIERAKOA; EZ BIZIAGOA DERRIGOR**

**GUZTIRA 1.585 ARGAZKI IGO DITUGU WIKIMEDIAKO WEBGUNERA LEHEN TXANDA HONETAN**

2006ra bitartean egunerokoak presentzia handia zuen aldizkarian; 2007an, berriz, eguneroko gaiak webgunera eraman ziren, eta erreportaje eta elkarrizketa zabalagoekin eta landuagoekin hasi ziren aldizkaria osatzen.

Guztira 1.585 argazki igo ditugu Wikimediako webgunera lehen txanda honetan. Argazki artxiboa Wikimedia Commons Plataforman ikus daiteke, *https://commons.wikimedia.org/wiki/Category:Baleike* helbidean. Wikimedia Fundazioaren ekimena da Wikimedia Commons eta 2003an sortu zen Ameriketako Estatu Batuetako Kalifornia estatuan. Handik urte batzuetara, 2006an, heldu zen Euskal Herrira, eta helburua argia du: munduko herritarrak CC lizentziadun eduki librea sortzera bultzatzea. Wikipedia entziklopedia librea da beharbada fundazioaren proiekturik ezagunena, baina, bere baitan ditu beste zenbait proiektu, horietako bat da argazki artxiboak biltzeko Wikimedia Commons.

Ezaugarri bat dute fundazioaren proiektu guztiek: lizentzia librea. Hau da, bertan sartutako edukiak edonork erabil eta edita ditzakeela. Kasu hori da *Baleike*ko argazkiena ere. CC lizentzia librean partekatuta daude irudiak. Hau da, argazki horiek nahi duen orok hartu, eta nahi duen funtziorako erabil ditzake. Baldintza bakarra bete behar da: argazkiaren jabetza intelektuala aitortzea, hau da, irudia *Baleike*rena dela esatea. Argazki horiek bere horretan erabiltzeaz gain, badago editatzea ere. Hori eginez gero, argazkiaren egilea nor den adierazi beharko da, baita argazki hori editatuta dagoela ere. Gainera, behin hori eginda, berriz ere lizentzia librean partekatu beharko da irudia.

Denera, lehen txanda honetan, 1.585 argazki daude digitalizatuta, eta hainbeste irudiren artean, bilaketa errazteko asmoz, argazkiak urteka bila daitezke. Gainera, argazki horiek guztiak zortzi kategoriatan sailkatu dira, bilaketa errazteko asmoz: ekonomia, euskara, gizartea, hezkuntza, kirola, kultura, politika eta ikuspegia. Argazkiarekin batera irudian ikusten denaren inguruko informazioa ere bilduta dago artxibo honetan: nor ageri den argazkian, aldizkariko zer zenbakitan eta zer orritan agertzen den, zer ikusten den bertan… Dokumentazio lan sakona dago, beraz, irudi bakoitzaren atzean. ▬

Zumaiako Herri Eskola

# EKOSISTEMA HEZITZAILEA

*Denok egiten dugu, denon etxea da*

Matrikulazioa: Urtarrilaren 17tik 28ra

Ate Irekiak: Urtarrilak 15, larunbata (hitzorduarekin)

SOLOZABAL
autoeskolak
Etxezarreta, 19 ▪ 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak
Psikomotrizitatea - Naturopatia
www.sura.eus
Sura
ZAINTZA
OINARRIAN
Patxita Etxezarreta 17 · 688 71 85 38

talaia
taberna • jatetxea
Santiago auzoa, 4
Tel. 943-14 33 70


Txapaia
Taberna
Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA
TTAKUN
Izustarri, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Saltxitxak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran
Ondartxo plaza, 4 beheo -Tel. 943 573 905

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria
Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna
Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 · 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97

Xanti
ALTZARIAK
Amaiako plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

Zumaian bertan eguzki energia sortzera goaz. Izan aldaketaren parte, zatoz Eguterara.
Egin aurrematrikula:
labur.eus/egutera
egutera
ZUMAIAKO ENERGIA KOOPERATIBA
EGOTETIK EGITERA
ekiola
Zumaiako Udala
ZUMAIA BIZITZEKO DA

# Abstrakziotik desagertutakoak

ARTEA

**TESTUA:** JUAN LUIS ROMATET

Gizarteko edota kulturako arlo askotan bezala, emakumeek arte abstraktuari egindako ekarpenak ahaztu egin dira, eta, hein batean, desagerrarazi ere bai. Egoera horri buelta eman nahian, eta emakume artistek abstrakzioari egin dioten ekarpenaren historia berridazteko asmoarekin, *Emakumeak abstrakziogile* erakusketa antolatu du Bilboko Guggenheim museoak. Erakusketa hori abiapuntutzat hartuta, Ismael Manterola EHUko Arte Ederren Fakultateko Artearen Historia irakasleak hitzaldia emango du urtarrilaren 20an, 19:00etan hasita, Alondegiko Oxford aretoan.

Irakasleak dio Bilboko museo horretan zabaldu duten erakusketa topiko asko haustera datorrela. "Artistaren mitoaren barruan, topikoek diote emakumeek gehiago jo zutela loreak, paisajeak, umeak edo bodegoiak margotzera. Bazeudela gai batzuk gizonenak zirenak, eta beste batzuk emakumeenak. Arte historian dagoen ideia da arte abstraktuan, haren sorreran eta garapenean, emakumeek ez zutela parte hartu; gizonen kontua izan zela arte abstraktua. Eta erakusketa honek erakusten du hori ez zela horrela izan. Artista pila bat, artelan pila bat bildu du erakusketa honetan, eta horrek erakusten du emakumeek ere ekarpena egin zietela abstrakzioari", dio Ismael Manterolak.

Guggenheimen zabaldutako erakusketako lan batzuk.

Europan eta Ameriketan bakarrik ez, arte iraultza hori mundu osoan gertatu zen XX. mendearen hasieran, eta hori ere erakusten du Guggenheimen otsailaren 27ra arte bisitagai dagoen erakusketak. "Hori da erakusketa honek egiten duen beste ekarpen bat: mundu guztiko artelanak bildu dira bertan. Ez da Mendebaldeko artegintzan bakarrik zentratu, mundu mailako beste leku batzuetako artelanak ere erakutsi nahi izan dira". Erakusketak 300, ia 400 artelan biltzen ditu orotara.

Hitzaldian, Manterolak abstrakzioaren inguruan ere hitz egingo du. Izan ere, arte mota horrek ikusleen edota erakusketetako bisitarien artean harridura sortzen du askotan. "Abstrakzioa zabaltzea ere bada hitzaldi honen helburua. Jendeak esan ohi du ez duela ondo ulertzen abstrakzioa, eta horren inguruan buelta bat ere eman nahi dut, pixka bat ikusteko abstrakzioa ez dela hain gauza arraroa. Ulertezinaren kontu hori askotan erabiltzen da arte abstraktuaren kasuan. Horren inguruan hitz egin nahiko nuke bertaratzen direnekin. Elkarrizketa puntu bat izango du".

# Galtzaileak eta traketsak harremanetan

**Taxiak ez dira inoiz gelditzen**

**Egilea:** Xabier Montoia
**Argitaratzailea:** Susa
**Argitaratze urtea:** 2021
**Orrialdeak:** 137
**Generoa:** narrazioa

**TESTUA:** ANTTON PEÑALBA

Lau urteko isilaldi literarioa urratu du Xabier Montoiak, Susak argitaratu berri duen liburuarekin. Taxiak ez dira inoiz gelditzen. Sormenerako gaitasuna musikaren eta letren artean banatzen duen Montoiaren 22. liburua da; narrazio liburuak soilik aintzat hartzen badira, zazpigarrena.

Ipuin liburua. Eta, kasu honetan, ipuin liburu terminoa aproposagoa da, ipuin bilduma terminoa baino; izan ere, ipuinen artean lotura estuak dituzten kontakizunak aurkituko ditu irakurleak. Pertsonaiak ipuin batetik bestera saltoka ageri dira; areago: maiz, pertsonaia bera behin baino gehiagotan azalduko zaigu, eta horietan guztietan, gainera, protagonista bezala. Bizitzaren krudelaz, halabeharraz, eta giza harremanen konplexutasunez diharduten ipuinak bildu ditu Montoiak liburu honetan,

Pertsonaia gehienak ahaideak dira, eta ez direnek lotura afektiboren bat dute euren artean. Alderdi horrek intentzionalitatea eta batasuna ematen diote liburuari, eta, narrazioz narrazio, familia konplexu baten erretratua iradokitzen du obrak.

Protagonista nagusiak bi emakume dira, Ane eta Maite, bata erresidentzia bateko langilea eta bestea irakasle prekarioa, eta guztietan hitz egiten dute lehen pertsonako diskurtsotik. Bien soslaia beren bizitzako une ezberdinetako gertaeraz osatzen da: figura bakarrak eta aurpegi ugari. Galtzaileak balira bezala irudikatu ditu idazleak, patetikoak zenbait kasutan, edozein irakurlek berarentzat nahiko ez lituzkeen bizitzak irudikatzen dituztenak.

Feminitate eredu ugariak fikzionatu dira, hegemonikoaz gain, bazterrekoak, mari-mutilak, maskulinoak, desio eta harreman sexual homosexualak, eta heterozuzenak ez direnak. Bestetik, ama-alaba harreman gatazkatsuak irudikatu dira, aditzera emanez, harreman on/txar dikotomikoaz gain, konplexuagoak diren erlazioak ere egon daitezkeela, eta badaudela, gainera

**GIZON-EMAKUMEEN BALIO MORALEN ETA HAIEN GALERAREN INGURUAN HAUSNARTZEN DU**

Pertsonaia eta istorioen bidez gizon-emakumeen balio moralen eta haien galeraren inguruan hausnarketa planteatzen du Montoiak bere narrazioetan. Izan ere, ez beti baina bai oso maiz, norberaren edo gizartearen ustezko kode moralaren apurketa bat dago, eta transgresio deitu daitekeen horren ondorioekin aurrez aurre jartzen ditu idazleak bere pertsonaiak. Irakurlea ere dilema horien aurrean jartzen du. Irakurleak jakingo du gero zer egin.

Euskarazko ipuingintzaren ezbairik gabeko erreferente nagusietako bat den Xabier Montoiaren ipuinok, kasurik gehienetan ohiko umore beltzaren pitin batekin onduak, berak idazten dituen bezala irakur daitezke: disfrutatzeko.

# AGENDA

## ERAKUSKETAK

**ABENDUAK 14-30**

Txotxongiloak eta artegintza

## DEIALDIAK

**URTARRILAREN 16RA ARTE**

Argazki Lehiaketa:
Gabonak Zumaian

**OTSAILAREN 4RA ARTE**

Inauteritako Kartel Lehiaketa

**OTSAILAK 16**

Euskarazko hitzaldiak.

## URTARRILA

**3, ASTELEHENA**

**Kimikarin zientzia ginkana** (6-12 urte)
*Oxford aretoan, 10:00 eta 15:00etan.*

**4, ASTEARTEA**

**Errege Magoentzat eskutitzak jasotzea.**
*Eusebio Gurrutxaga plazan, 18:00etan.*

**5, ASTEAZKENA**

**Errege kabalgata.**
*18:30.*

**7, OSTIRALA**

**Kontzertua.** Jon Maia: *Kantu Bat gara*
*Zumaienan , 20:00etan.*

**9, IGANDEA**

**Haur antzerkia:** *Perez Sagutxoa.*
*Aita Marin, 12:30 eta 16:30etan.*

**13, OSTEGUNA**

**Zine forum:** PETITE MAMAN
Zuz: Céline Sciamma.
*Aita Marin, 19:00etan.*

**16, IGANDEA**

**Txakur krosa**.
*11:00etan.*

**20, OSTEGUNA**

**Hitzaldia:** Ismael Manterola, *Emakumeak abstraktugile*
*Oxford aretoan, 19:00etan.*

**27, OSTEGUNA**

**Zine forum:** EL AMOR EN SU LUGAR.
Zuz: Rodrigo Cortés.
*Aita Marin, 19:00etan.*

**28, OSTIRALA**

**Antzerkia:** , Formol konpainiaren *Album.*
*Aita Marin, 20:00etan.*

**9, IGANDEA**

**haur antzerkia:** *Perez Sagutxoa.*
*Aita Marin, 12:30 eta 16:30etan.*

## OTSAILA

**6, IGANDEA**

**Haurerntzako kontzertua:** KONTU KANTARI 2
*Aita marin, 12:00etan.*

**10, OSTEGUNA**

**SPIRIT:** Lidia Insausti, Noa Egiguren eta Lide Hernando eta musikariak gospel eta soul musikaz.
Aita Marin, 20:00etan.

**Zine forum:** QUERIDOS CAMARADAS Zuz: Andrei Konchalovsky.
19:00etan.

**11, OSTIRALA**

**Antzerkia:** , *"Eresia", Oier Zuñiga*
*Aita Marin, 20:00etan.*

# Huddersfield-New York-Zumaia Connection

**MARIXI SESMA AIZPURUA**

Musika klasikoaren deszentralizazioa interesatzen ez bazaizu, ez du merezi hau irakurtzen jarraitzea, ez galdu denborarik, baina uste baduzu hiriburuan bizi den norbaitek bezalaxe zergak ordaintzen dituzula, agian bai. Zuk erabaki..

Aspaldi zioen Doris Lessing-ek "gobernu bateko, sail bateko, ministerio bateko edo gobernuko edo Administrazioko edozein erakundetako goi-kargudunek ez dakite inoiz zer gertatzen den gizarteko behe-mailetan". Eta idazle berberak –XX. mendean eragin handienetako bat izan zuen emakumeak– zioen, baita ere, "gaur egun, gure teknologia berriak eraginkortasunez erabiltzeko hezten den jendea da munduko elitea, baina, epe luzera, uste dut frogatuko dela lehen 'humanistak' esaten zitzaien ikuspuntu hori – ikuspegi globala, kontenplatiboa– izateko prestatutako pertsonek izango dutela eraginik handiena. Pertsona horiek munduan gertatzen direnak baino gauza gehiago ulertzen dituztelako, besterik gabe".

Hezkuntzari dagokion azken lege aldaketatik (LOMLOE) eratorritako curriculumek, ordea, badirudi ez dutela lagunduko hausnarketa kritikoaren garapena hobetzen, edo ez dutela bultzatuko, behintzat.

Proposamen bat egiten dizut, honako datu hauek kontuan hartu eta hausnartu zure kabuz (horretarako denborarik hartzen baduzu, noski):

Euskal Herrian gaur egun ditugun batxilergo modalitateak eta bideak hiru dira: alde batetik, Zientziak; bestetik, Giza eta Gizarte Zientziak (bideak: Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak); eta, azkenik, Arteen modalitatea.

Urola Kosta eskualdean kokatutako testuinguruan Musika Arloko Bitartekaritza, Kudeaketa eta Zabalkundeko Masterraren amaiera lanerako egindako ikerkuntza baten ondorio batzuek diotenez, besteak beste, Gipuzkoako Lurralde Historikoak 726.732 biztanle biltzen ditu (2020ko urrian). Inguru horretan, XXI. mendean sarturik eta Lurralde Historikoaren Legea (Carlos Garaikoetxeak sinatuta, 1983an) egin eta ia 40 urtera ez dago musikarako ikasketa zentro arauturik, hau da, balio ofiziala duenik eta herritarrak Urola Kosta eskualdean prestatzeko aukera hori izan dezaten. Lege hark zuen helburuetako bat zen kultura-sektorea garatzeko aukera ematea herritar guztioi. Baina paperean soilik; izan ere, errealitateak beste kontu bat jarri du mahai gainean: batetik, Urola Kosta eskualdean ez dago Batxilergo Artistikorik eskaintzen duen zentrorik, eta ikasketa profesionalak dituen kontserbatoriorik ere ez (Irunen, Errenterian eta Donostian baino ez daude Gipuzkoan); bestetik, gainera, herrietako baliabideak eta azpiegiturak ez dira gaur eguneko beharretara egokitu eta leku aproposak ez daude sobran.

**UROLA KOSTAN EZ DAGO BATXILERGO ARTISTIKORIK ESKAINTZEN DUEN ZENTRORIK**

Master amaierako lanak harremanetan jarri ditu munduko beste leku batzuetan ere ildo bereko ikerketak; alegia, musika klasikoaren deszentralizazioa. Esaterako Huddersfield University Ingalaterran edota Manhattan School of Music New York-en. Gaiak garrantzi handia du.

Eta hasieran Doris Lessing-ek esaten zuenaren harira bueltatuz, hona hemen Zumaian gertatzen den adibide bat. Udaran izaten den Musika Jaialditik punta-puntako artistak pasatu dira askok jakin

gabe. Ondo legoke estatistika moduko bat egitea –harrituko ginateke–, baita Jaialdiaren hasieran funtsezkoak izan ziren ikastaroak leheneratzea ere; izan ere, belaunaldi batzuentzat Zumaiako Udarako Ikastaroa erreferentea izan da. 37. edizioa amaitu eta gero, herrian musikari profesionalak eta kultur munduan ekarpen bikainak egiten dituzten pertsonak badaude, eta ez bakarrik Zumaian. Horren "errudun" handia Musika Jaialdia izan da, bertan ikusi eta entzuteko aukera egon delako eta euren ibilbidetan zerikusia izan duelako. Musika Jaialdia hasi zenean, piano ikastaro batzuen aitzakian, bertan aritzen ziren irakasleek eskaintzen zituzten kontzertuak (ez da ahaztu behar zumaiar bat ere tartean zela) eta gaur egun, esate baterako, San Pedro Abesbatzak bere urteko kontzerturik bereziena eskaintzen du Jaialdian, Musika Bandak ere bere lekua du, herriko musikari profesionalek ganbara taldeekin kontzertuak eskaintzen dituzte eta Jaialdiak musikari profesionalez osaturiko orkestra egoiliarra du (Sapere Aude Sinfonietta). Eta, gainera, musika klasikoan zuen oinarriaren esparrua zabaldu egin da, hau da, haurrei keinua egiten zaie eta beste diziplina batzuei ere bai: musika garaikidea, jazz-a, dantza, euskal musika, Donostiako Musika Hamabostaldiarekin lankidetza… Kostatuko da egoera hori lortzea eta topatzea maila honetan egiten den beste musika jaialdiren batean. Hori guztia gutxi balitz, goi mailako hainbat zentrotan egin diren masterreko ikerkuntzetan ere Zumaiako Musika Jaialdiarekin erlazionaturiko kontuak balio adierazgarria dute.

Etorkizunera begira, ordea, batetik kultur esparruan hamaika diziplinatan bertako profesionalen belaunaldi bikaina dago eta aprobetxatu egin behar da trena; eta, bestetik, XXI. mendean sartuta, garaiko baliabideekin lan egin behar da.
Eta etorkizunari begira ere ezinbestekoak dira hiru zutabe zaintzea: batetik, edukiek aberasgarriak behar dute izan herrirako eta gizartearentzat; bestetik, etorkizun sena, alegia, eskaintzen denak kontsumo hutsa izatetik haratago joan behar du, hau da, entretenimendu hutsa baino gehiago izaten saiatu behar du, kalitatea ahaztu gabe, eta hala, musikaren kulturarekin sentsibilizatuta eta inplikatuta dagoen gizartea eraiki behar da, benetako herrialde garatuak bezala; eta, azkenik, giza kapitalaren eta testuinguruaren ezagutzaren zaintza.

**BELAUNALDI BATZUENTZAT UDARAKO IKASTAROA ERREFERENTEA IZAN DA**

Halaber, ez da ahaztu behar, ezta ere, baliabideak eta azpiegiturak eguneratu eta beharrei egokitzea, hori horrela izanik, herritarren garapenari eta etorkizunari begira, mende honetan jada eskatzen diren lanbide berriak gauzatuko direlako; alegia, Kultura ere industria bat da. Baina balio erantsia du, Kultura herrialde bat neurtzeko erabiltzen den termometroa baita.

Nork ditu argi luzeak piztuta Musika Klasikoaren deszentralizazioa bermatzeko?

-What are the social impacts of attending live classical music events staged in small towns? (University of Westminster, London, 2017)
-El acceso a la música clásica en la comarca de Urola Kosta: A propósito de la descentralización de la cultura musical (Musikene, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia, 2021). ▬

# Lautik bostera

**JUAN LUIS ROMATET**

Laua iragana da, bosta oraina eta, aldi berean, etorkizuna, hamarkada baterako bada ere. 50; bost-zero: ez matematiketan jarraian aterako nituzkeen bost kate; adina, baizik. Azkar esaten da: 50 urte, mende erdia. Agian, zeinek daki, adinarekin zentzuzko pertsona bihurtuko naiz, nahiz eta, nik uste, nire ardura falta fabrikatik datorrela, mugikorretan ezin kendu diren alferrikako aplikazio horien antzera.

Adinean aurrera joateak pentsatzera eramaten zaitu. Ez hilezkortasunean, jainkoaren existentzian edo tunelaren amaieran ikusten den ustezko argi hori fluoreszente edo led modukoa izango den. Ez naiz horraino heltzen, nire zalantzak baditut ere. Nire terrenora eramanda (diskoak, liburuak, komikiak), pentsatzen jartzen naiz ea merezi duen horiek erosten jarraitzea, horien bildumak egiten joatea. Baldak bete ditut eta ez da kontua lurra, alfonbra, parketa..., liburu, disko eta komikiz betetako kaxez estaltzea. Erregalatutako edota erositako liburu asko irakurri gabe ditut oraindik; biltzen joan naizen disko asko ia ez ditut entzun ere egin, eta izango da baten bat oraindik plastikozko funda ireki gabe duena ere. Gainera, Karlos lagunak aspalditik nahi nuen The Minus 5en disko hori oparitzen badit –aurretik July zenarena izan zen eta horrek oraindik eta bereziagoa eta hunkigarriagoa egiten du erregaloa–, pentsa daiteke nahikoa dela, zirkulua itxi dela, eta dudanarekin nahikoa eta gehiegi dudala.
50 urte bete baditut, 35 bat urte daramatzat diskoak erosten –liburuak erosten oraindik gehiago–. Gurasoek umemoko bat nintzela erregalatu zidaten lehen singlea ere gordeta dut. Erositako disko asko oparitu egin ditut; beste asko saldu edo aldatu. Damututa, gero berriro erosi ditut horietako batzuk, baina, egia da ez dudala denbora askorik diskoak entzuteko, eta, adinagatik izango ote den-edo, gero eta interes gutxiago dudala talde edo estilo berriak entzuteko edota ezagutzeko.

Diskoen prezioek ere izugarri egin dute gora azken hilabete hauetan, eta halako abenturatan sartu aurretik ondo pentsatu beharrean aurkitzen zara, derrepente, nahi gabe, ondo ordaindutako kaskarkeria batekin gera zaitezke eta. Agian diskoak erosteari utzi eta streamingeko plataformetan izena eman beharko dut, horrek tripako min galanta ematen badit ere.
Ai, lauarekin ez nituen zalantza ugari ekarri dizkit bostak.

Oharra: testu hau idatzi eta bost minutura Joseba Irazokiren eta Anariren azken diskoak eskatu dizkiot Irungo Bloody Mary diskoetxeko Juancarri. Beste bat ere gordeta nuen ordurako... Baina, beno, denok gara inkoherente samarrak.

**GURASOEK UMEMOKO BAT NINTZELA ERREGALATU ZIDATEN LEHEN SINGLEA ERE GORDETA DUT**

ONGI ETORRI
ALOKAIRU TURISTIKOAK

**Zure etxea alokatu nahi baduzu, guk kudeatuko dugu**

Publizitatea, etxea prestatu, bezeroari arreta, eta garbitasun lanak egingo ditugu. Eta behar duzunean etxea eskura izango duzu.
**Atera etekina etxeari**

**680 33 00 62**

ongietorrialokairuturistikoak@ni.eus

**@ONGIETORRIALOKAIRUAK**

Idoia
ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

ZUMAIENA, 2018az geroztik, ikasleak, familiak eta langileak protagonista dituen hezkuntza komunitate berria da. Herritarrez eta herriarentzat osatua, gizarte-eraldaketa helburu du gure eskolak. Hezkuntzan gauzak beste era batera egin daitezkeela sinesten dugu eta, askatasunez, proiektu zoragarriak lantzen dihardugu gure egunerokoan. Ilusioa dago gure lanaren muinean, mugak gaindituz eta haur eta gazteak hezkuntza-prozesuaren erdigunean jarriz.

Elkarri entzunez eta elkarlanean, ametsak egia bihurtzen ari gara.

Orain artekoa, hasiera besterik ez da...

IRAULTZA PEDAGOGIKO ETA ARKITEKTONIKOA

0KM-AN OINARRITUTAKO JANGELA PROIEKTUA "SUKALDE GIROAN"

KIVA: ESKOLA JAZARPENAREN AURKAKO PROGRAMA

BASO MAGIKOA

ETORRIKO DENA...

# ATE IREKIAK
# URTARRILAREN 22AN

zumaiena